

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak emandako 2021eko urriaren 25eko Dekretuaren laburpena, zeinak onartzen dituen 2021. urtean euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzen deialdia

DDBN(Identif.): 591762

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/591762>).

Lehenengoa: Onuradunak

Aiaran erroldatuta dauden pertsona fisikoak, baldin eta diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiarako udalerrian, euskara eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzen badute, eta ikastaroa hastean hamasei urte beteta badituzte.

Bigarrena: Xedea

Deialdi honen helburua da Aiarako udalerriko herritarrek 2021eko ikasturtean euskara ikastea sustatzeko dirulaguntzak arautzea (2020ko urritik 2021eko irailera, biak barne, egindako ikastaroek jasoko dute dirulaguntza).

Hirugarrena: Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak alkatearen urriaren 25eko 623/2021 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta, ondoren, ALHAOn argitaratu.

Halaber, oinarri arautzaileak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza jasota daude. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi, eta 2021eko irailaren 24an argitaratu zen 109. zenbakia duen ALHAOn.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: www.aiarakoudala.eus.

Laugarrena: Zenbatekoa

Gehienez, kostuaren ehuneko 100 lagunduko da diruz.

Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidan dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez izatekotan, lehentasuna izango du zenbatekoaren ehuneko 100 emateak langabezia egoera frogagarri eta egiaztatuan dauden eskatzaileei eta, ondoren, proportziorako banaketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiak matrikularen kostuari dagokion proportziorako ehuneko bera jaso dezaten laguntza moduan.

Dirulaguntzen gutziko zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede berekin lortutakoak barne, ezingo du inolaz ere onuradunak egindako ikastaroaren kostua gainditu.

Deialdi hau 2.4.816,43 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena: Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hogeita (20) egunekoa izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

Seigarrena: Beste datu batzuk

Eskabidea eta adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2021eko urriaren 26a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA